Creados en el año 2015 junto a Zaria Koru Eskola, son los coros infatil, juvenil y de adultos de la escuela. Dirigidos por Imanol Elizasu Lasa, durante estos cinco años han sido invitados a diversos festivales, realizado giras y ofrecido conciertos en: EEUU, Francia, Alemania, Chequia), Cataluña y diversas localidades del País Vasco.
Han colaborado con artistas como: Benito Lertxundi, Patxi Zubizarreta, Pello Ramirez, Aitor Gabilondo, Agustin Arrazola, Iñaki Alberdi, Haatik dantza konpainia, Oscar Portugués, etc.
Han colaborado con maestros como Josep Vila y Jover, Juan Pablo de Juan y Jose Manuel Tife Iparragirre.
Actualmente desarrollan diferentes proyectos con "Les petits chanteurs de Laval" (Canada), "Northern Harmony" (EEUU), "Piccolo" (Castelnaudary, Francia) y Novy Bor (Chequia). En 2021 han sido invitados a participar en el Festival internacional de Persan (París).
Premiados en diferentes concursos, destacar el primer premio y premio a la mejor interpretación de la obra obligada de Zariagaz en el 2017 en Candás (Asturias). En el mismo año Zaria Koru Eskola publicó su primer disco Zariaren harira.
Las producciones propias de Zaria Koru Eskola han obtenido gran éxito de público: Zaria USAn uso (2017), Munduko zaporeei bira (2018) y Memories of Queen (2019).

www.zariakorueskola.eus

# LANDARBASO ABESBATZA

1991 urtearen bukaeran sortu zen Errenterian eta egun, bataz beste, 29 urteko 49 abeslarik osatzen dute. Taldea, hasieratik, Iñaki Tolaretxipiren musika-zuzendaritzapean egon da.

Landarbasok errepertorio zabala lantzen du, hainbat garai eta estilotakoa, bai obra profano eta baita eliza obrak ere abestuz. Korurako euskal abesti ugari estreinatu ditu. Landarbaso abesbatzak euskal folkloreari lotutako obrak sortu eta harmonizatzen ditu, eta Konplize ditut eta…, Landarbaso Munduan I eta II edo Landarbaso 25! egitasmoak publikoaren aurrean aurkeztu ditu. Taldeak 2016 urtean bere 25. urteurrena ospatu zuen, eta ordutik haur eta gazte taldeak ere baditu.

Abesbatzak azken urteotan penintsulan zehar ziklo, lehiaketa eta kontzertu askotan parte hartu du eta 2001etik aurrera abesbatza nazioarte mailako lehiaketetatik gonbiteak jasotzen hasi zen, sari garrantzitsuak eskuratuz. Landarbaso Abesbatzak 4 sari nazional eta nazioarteko 16 ditu.

9 disko grabatu ditu eta horietatik aipagarriena, bere 25. urtemuga zela eta 2016an grabatu zuten Konplize ditut eta… diskoa da.



Landarbaso Abesbatza se fundó a finales del año 1991 y en la actualidad está compuesta por 49 coralistas, con una edad media que ronda los 29 años. Desde sus comienzos ha estado bajo la dirección musical de Iñaki Tolaretxipi.
El coro abarca un programa muy variado, interpretando obras de diversas épocas y estilos, tanto profanas como religiosas. Ha estrenado numerosas obras corales vascas. Landarbaso realiza trabajos de creación y armonización del folklore vasco, ofreciendo al público proyectos como Konplize ditut eta…, Landarbaso Munduan I eta II o Landarbaso 25!. Desde el 2016, año del 25 aniversario de la agrupación, se suman a la entidad el grupo infantil Kontari y el juvenil Landarbaso Dizdizka.
Ha participado en numerosos ciclos y conciertos, iniciando en 2001 su participación en diversos concursos corales internacionales, con el logro de un total de 4 premios nacionales y 16 internacionales.
Ha participado en 9 proyectos discográficos, destacando entre ellos el denominado Konplize ditut eta… grabado en 2016 con motivo de su 25 aniversario.

# ANDRA MARI ABESBATZA

Errenterian 1966an José Luis Ansorenak (1928-2019) sortua, Andra Mari Abesbatzak koru musikan genero guztiak jorratzen ditu, euskal musikan espezializatua badago ere.
Gure herrian sortako musika zaintzeko eta promozionatzeko beharrak zirela eta sortu zituen, José Luis Ansorenaren eskutik, 1973an Errenterian geroztik urtero egiten den Musikaste jaialdia eta, 1974an, berriz, Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa.
Bere ibilbidean nabarmentzekoak dira grabatu dituen hemeretzi diskoak, Estatuko jaialdi nagusienetan parte-hartzeak, eta hainbat orkestrekin emandako kontzertuak: besteak beste, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Bilbokoarekin, Espainiako Nazionalarekin, Tenerifekoarekin, Galiziakoarekin, Mahler Chamber Orchestrarekin, Frankfurt Irratiaren Orkestrarekin, Scottish Chamber Orchestrarekin… eta, beste askoren artean, M. Honeck, F. Brüggen, P. Herreweghe, J.J. Mena, A. Boreyko eta A. Orozco-Estrada, maisu handiek zuzenduta.
Egun Andoni Sierra da erakundearen zuzendari artistikoa.



La necesidad de conservación y promoción de la música creada en nuestro país hizo que, bajo la dirección de José Luis Ansorena, en 1973, creara el festival de música vasca MUSIKASTE y, en 1974, ERESBIL –Archivo Vasco de la Música.
Fundada en Errenteria en 1966 por José Luis Ansorena (1928-2019), la Coral Andra Mari cultiva todo género de música coral, aunque su especialidad es la música vasca.
En su trayectoria destacan la grabación de diecinueve discos, su participación en los principales festivales del Estado y las colaboraciones con diferentes orquestas sinfónicas: Orquesta Sinfónica de Euskadi, Orquesta Sinfónica de Bilbao, Orquesta Sinfónica de Tenerife, Orquesta Sinfónica de Galicia, Madrid, Orquesta Nacional de España, Mahler Chamber Orchestra, Radio Frankfurt, Scottish Chamber Orchestra..., bajo la dirección de maestros de la talla de M. Honeck, F. Brüggen, P. Herreweghe, J.J. Mena, A. Boreyko, o A. Orozco-Estrada, entre otros.
En la actualidad Andoni Sierra es el encargado de la dirección artística de esta entidad.



24 maiatza mayo

larunbata - sábado

20:30ean

Fatimako Parrokia
Parroquia de Fátima

## KARNABA OTXOTEA

| | |
|---|---|
| **Emiliano Ibarguchi** | *O quam amabilis es* |
| **Javier Bello Portu** | *O vos omnes* |
| **Jesús Guridi** | *Txeru* |
| **Josu Elberdin** | *Ezpondan badire* |
| **Iparragirre / J.M. González Bastida** | *Ara nun diran* |

**Sergio Zapirain,** zuzendaria

## ZARIA KORU ESKOLA: ZARIATXO, ZARIAGAZ ETA ZARIA ABESBATZAK

| | |
|---|---|
| **Junkal Guerrero** | *Bi bihotz* |
| **Javier Bello Portu** | *No lloréis mis ojos* |
| **Iparragirre/Javier Bello Portu** | *Nere amak baleki* |
| **Jesús Guridi / José Luis Ansorena** | *Ama Birjina fidela* |

Aitor Galdos, flauta Maruxa Llorente, pianoa

**Imanol Elizasu Lasa,** zuzendaria

## LANDARBASO ABESBATZA

| | |
|---|---|
| **José Luis Ansorena** | *Iparragirre eta Xenpelar* |
| **Javier Bello Portu** | *Un homenaje a Iparraguirre* |
| **Laura Jēkabsone** | *Biziro bizi** |

***Estreinaldi nagusia**

Iñaki Letamendia, perkusioa Oier Etxaburu, pianoa

**Iñaki Tolaretxipi,** zuzendaria

## ANDRA MARI ABESBATZA

| | |
|---|---|
| **Javier Bello Portu** | *Chori erresiñoula* |
| **José Luis Ansorena** | *Cuatro melodías vascas* |
| | *Alabatua, Garizuma luzerik,* |
| | *Aritz adarrean, Sant Urbanen bezpera* |
| **Junkal Guerrero** | *Etorkizuna* |

**Andoni Sierra,** zuzendaria

ANSORENA, José Luis
ARANAZ y VIDES, Pedro
BACAICOA, Luis
BELLO PORTU, Javier
BEOBIDE, José Mª
ÇABALETTE, Peio
CATALÁN, Teresa
CENDOYA, Manuel
DÍEZ, Antonio
ELBERDIN, Josu
ERKOREKA, Gabriel
GONZÁLEZ BASTIDA, Jose Mª
GONZÁLEZ BASTIDA, Miguel
GUERRERO, Junkal
GURIDI, Jesús
HERMOSA, Gorka
IBARGUCHI, Emiliano
IBARRONDO, Félix
IPARRAGUIRRE, José María
JĒKABSONE, Laura
LAUZURIKA, Antonio
LAZKANO, Ramon
PABLO, Luis de
SANTIAGO, Rodrigo A. de
TORRE-MUZQUIZ, Conde de



# MUSIKAGILEAK
## Compositores

ANSORENA, José Luis

## ANSORENA, José Luis

Donostian jaio zen 1928an. Harmonia, konposizio eta piano ikasketak Donostiako Kontserbatorioan egin zituen Luis Urteaga eta Beltran Pagolarekin. 1942an Altsasuko Kaputxinoen Seminarioan sartu zen eta ikasketa erlijiosoekin batera musikakoak sakondu zituen. 1953an apaiztu, eta hurrengo urteetan abesbatza ugari sortu eta zuzendu zituen Iruña, Zaragoza eta Errenterian. Errenterian, hain zuzen, Andra Mari (1966), Orereta haur-korua (1968) eta Oiñarri (1976) gazte-korua sortu zituen. Euskal musikagileen musika ezagutarazteko, 1973an Musikaste zikloa sortu zuen eta, hurrengo urtean, Eresbil Musikaren Euskal Artxiboa euskal musikaren ondarea jasotzeko. Organista ere izan zen fraide bidali izan zuten lekuetan. Euskal musikari buruzko ikerketa, artikulu, liburu eta musikagileen katalogo ugari egin zituen: Aita Donostiari buruzko biografia; txistua eta txistularien inguruko liburua; eta Almandoz, J.M. Usadizaga, Sorozabal eta Aita Donostiaren musika katalogoak, besteak beste. Obra erlijiosoak eta korurako lanak ere idatzi zituen. Iruñean zendu zen 2019ko maiatzaren 1n.

Nació en San Sebastián en 1928. Cursa estudios de armonía, composición y piano en el Conservatorio donostiarra con Luis Urteaga y Beltrán Pagola. En 1942 ingresa en el Seminario Capuchino de Alsasua, compaginando los estudios eclesiásticos con los musicales. Ordenado sacerdote en 1953, durante los siguientes años crea y dirige diversos coros en Pamplona, Zaragoza y Errenteria, donde funda la Coral Andra Mari (1966), el coro infantil Orereta (1968) y el coro juvenil Oiñarri (1976). Con el objetivo de difundir la música creada por compositores vascos, en 1973 crea el ciclo Musikaste y al año, Eresbil - Archivo de Compositores Vascos, orientado a recopilar y conservar el patrimonio musical vasco. Ha ejercido como organista en los destinos religiosos que ha ocupado. Es autor de numerosos estudios, artículos, libros o catálogos de compositores relacionados con la música vasca, como la biografía de Aita Donostia, la monografía sobre el txistu y los txistularis, así como los catálogos musicales de N. Almandoz, J. Mª. Usandizaga, P. Sorozábal y P. Donostia. En su faceta de compositor ha compuesto música religiosa y coral. Fallece José Luis Ansorena el 1 de mayo de 2019 en Pamplona.

http://www.eresbil.com/web/ansorena/

ARANAZ Y VIDES, Pedro

## ARANAZ Y VIDES, Pedro

Tuteran jaio zen, Nafarroan, 1740an. Zaragozako katedralean koruko infante gisa ikasi zuen musika, Luis Serraren zuzendaritzapean lehenik eta Francisco Javier Garcíaren “El Españoleto”renean ondoren. Madrilera itzulita, tonadilla eszenikoak konposatzera bideratu zuen bere ibilbidea, eta genero liriko horren bultzatzaile nagusietako bat bilakatu zen. Kapera maisu lanpostu ezberdinetarako oposaketak egin ondoren, 1769an Cuencako katedraleko lanpostua lortu zuen. 1773an apaiztu egin zen, eta musika erlijiosoari ekin zion aurrerantzean. Cuencako musika kaperaren buru aritu zen 1797ra arte, pentsio bat eman zioten arte. Hala ere, 1800. urtean kargua berriro hartu zuen, kaperarako lan ugari osatuz.

Hainbat musika-idazkiren egilea izan zen, adibidez: *Plan de ejercicios de oposiciones*, gaur egun galduta dagoena, *Tratado completo de composición de los niños que se dedican al estudio de la música, y principalmente en las catedrales de España*, Francisco Olivaresekin batera idatzia, edo *Reglas generales para una composición de música perfecta*.

Musika lan ugariren egilea izan zen, zati handi bat erlijiosoa, katedraletako artxiboetan gordetzen dena nagusiki, eta baita 15 tonadilla ere.

Cuencan hil zen 1820an.

Nació en Tudela, Navarra, en 1740. Recibió enseñanza musical como infante de coro en la catedral de Zaragoza, bajo la dirección primero de Luis Serra y después de Francisco Javier García, “El Españoleto”. Trasladado a Madrid orientó su carrera a la composición de tonadillas escénicas, convirtiéndose en uno de los principales impulsores de este género lírico. Tras opositar a diversas plazas de maestro de capilla, en 1769 obtiene la plaza de la catedral de Cuenca. En 1773 se ordena sacerdote, dedicándose en adelante a la música religiosa. Permanece al frente de la capilla musical de Cuenca hasta el año 1797, en el que se le concede una pensión, pero en 1800 vuelve a tomar el cargo, componiendo numerosas obras para la capilla.

Fue autor de varios escritos musicales, como un *Plan de ejercicios de oposiciones*, hoy perdido, un *Tratado completo de composición de los niños que se dedican al estudio de la música, y principalmente en las catedrales de España*, escrito juntamente con Francisco Olivares, o las *Reglas generales para una composición de música perfecta*.

Es autor de una extensa obra musical, gran parte de ella religiosa, distribuida en archivos principalmente catedralicios, así como de 15 tonadillas.

Fallece en Cuenca el año 1820.

BACAICOA, Luis

## BACAICOA, Luis

Etxarri Aranazen (Nafarroa) jaio zen 1920an. Francisco Urrestarazu herriko organistarekin ikasi zuen solfeoa, eta M. Etxebesterekin pianoa eta organoa Iruñan. Madrilgo Kontserbatorioan Guridi, Lola Rodríguez eta Julio Gómezekin egin zituen organo, kantu eta konposizio ikasketak. *Organoko Sari Nazional Berezia* jaso zuen, eta New Yorken pianoko ikasketak sakondu zituen Emilia del Terzorekin. Apaiz pauldarra izanik, herrialde askotan ibili zen misiolari, aldi berean piano, organo eta kantuko kontzertuak emanez. 1964an Händelen orkestra eta organorako bi kontzertu grabatu zituen Manilako Orkestra Sinfonikoarekin. Kontzertu ugari eskaini izan ditu Estatu Batuak, Espainia, Mexiko, Filipinak, eta abarretan. Grabazioak ere egin izan ditu RTVE-rentzat. Madrilgo Milagrosa basilikako organista titularra izan zen eta Iruñako Milagrosakoa ere bai. Afizionatu mailan gitarra ere gustukoa du, eta kantautore moduan diskoak grabatu ditu.

Musikagintzan ere jardun du, batez ere musika erlijiosoa landuz. Obra horien artean aipatzekoak dira: *In honorem Sanctae Luisae Marillaccensis* meza (4A, org.), *Padre nuestro* (7A), *25 Cantos-motetes* (A, org.), pianorako, organorako obrak, eta abar.

Nace en Echarri Aranaz (Navarra) en 1920. Estudia solfeo con el organista local Francisco Urrestarazu y piano y órgano con M. Echeveste en Pamplona. En el Conservatorio de Madrid estudia órgano con Jesús Guridi, canto con Lola Rodríguez y composición con Julio Gómez. Logra el *Premio Extraordinario Nacional de Órgano* y perfecciona sus estudios de piano con Emilia del Terzo en New York. Sacerdote paúl, viaja por numerosos países como misionero, ofreciendo al mismo tiempo recitales de piano, órgano y canto. En 1964 graba dos conciertos de Händel para orquesta y órgano con la Orquesta Sinfónica de Manila. Ofrece conciertos en Estados Unidos, España, México, Filipinas, etc. y realiza grabaciones para RTVE. Ha sido organista titular de la basílica de la Milagrosa de Madrid y de la Milagrosa de Pamplona. Aficionado a la guitarra, ha grabado discos como cantautor.

Se ha dedicado también a la composición, principalmente de música religiosa. Entre sus obras se incluyen: la misa *In honorem Sanctae Luisae Marillaccensis* (4V, órg.), *Padre nuestro (7V), 25 Cantos-motetes* (V, órg.), obras para piano, piezas para órgano, etc.

BELLO PORTU, Javier

## BELLO PORTU, Javier

Zuzendari eta musikagile gipuzkoarra Tolosan 1920an jaioa. Piano, harmonia eta konposizio ikasketak hasi ondotik, Eduardo Mocoroa, Ignacio Mocoroa eta Felipe Gorritirekin osatu zuen prestakuntza instrumentala. Filosofia eta Letretako ikasketak egin zituen Madrilen, eta han Baroja familia ezagutu zuen. Musikaren estetikari zegokionez, funtsezkoa izan zen Barojatarren eragina. 1943an, Tolosara itzulita, Felipe Gorriti Eskolania sortu zuen, eta harekin batera Espainiaren eremu handi batean barrena ibili zen, baita Frantziako hiri askotan ere, euskal musikagile askoren lanak ezagutarazten. Parisko Kontserbatorioan, Sienako Chigiana Akademian eta Salzburgon jarraitu zituen orkestra-zuzendaritzako ikasketak, von Karajan, Dixon eta Leopoldo Hagesekin. Donostiako Orkestra Sinfonikoaren zuzendari titularra izan zen, Zaragozakoarena eta Santa Cecilia orkestrarena (1963-1983). Besteak beste, Salzburgoko Mozarteumeko orkestrarekin, Madrilgo eta Bilboko sinfonikoekin eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin aritu zen elkarlanean. Donostiako Easo Abesbatza eta Baionako Euskal Herriko Korua ere zuzendu zituen.

1971z geroztik, Loiolako Nazioarteko Jaialdiaren zuzendari artistikoa izan zen, eta Euskal Operaren Adiskideen Elkartearen ohorezko Presidentea, eta Euskal Herriko Txistularien Elkartearen presidentea ere izan zen.

Artezalea eta literaturazalea zen eta zenbait lan idatzi zituen txistuari, Felipe Gorriti, Manterola eta Santestebani buruz, Gipuzkoako musikari buruz eta Pío Barojaren musikaren gaineko ideiei buruz. 2001ean, Aus Art Records disketxeak hainbat disko argitaratu zituen Bello Portuk zuzendutako Gorriti, Ledesma, Manterola eta Xabier Muniberen lanekin.

Sortzearen ikuspegitik, nahiz eta lan askorik ez konposatu, haren lanak garrantzitsuak dira. Aipagarriak dira korurako sortutako *El llanto de Zalacain*, *Soule* eta *Pays Basque* koru triptikoa. *Carnaval de Lanz* suite sinfonikoa era nabarmendu beharra dago, Baita Iparragirrek abesbatzarako egindako kantuen egokitzapena ere. Javier Bello Portu euskal musikaren erreferenteetako bat izan da azken hamarraldiotan. Donostian hil zen 2004ko otsailean.

Director y compositor guipuzcoano nacido en Tolosa en 1920. Tras iniciar los estudios de piano, armonía y composición con Eduardo e Ignacio Mocoroa y Felipe Gorriti, completa su formación instrumental con César Figuerido en San Sebastián. Cursa estudios de Filosofía y Letras en Madrid, donde contacta con la familia Baroja, cuya influencia será fundamental en su estética musical. Cuando en 1943 vuelve a Tolosa, crea la Escolanía Felipe Gorriti y con ella recorre gran parte de España y muchas ciudades de Francia difundiendo el repertorio de compositores vascos. Continúa sus estudios de dirección de orquesta en el Conservatorio de París, en la Academia Chigiana de Siena y en Salzburgo con von Karajan, Dixon y Leopoldo Hages. Ha sido director titular de la Orquesta Sinfónica de San Sebastián, de la de Zaragoza y de la Orquesta Santa Cecilia (1963-1983). Ha colaborado con formaciones como la Orquesta del Mozarteum de Salzburgo, las sinfónicas de Madrid y Bilbao, o la Orquesta Sinfónica de Euskadi. Dirigió también el Coro Easo de San Sebastián y el Coro del País Vasco de Bayona.

Fue director artístico del Festival Internacional de Loyola desde 1971, Presidente de honor de la Asociación de Amigos de la Ópera Vasca y presidente de la Asociación de Txistularis del País Vasco.

Amante del arte y la literatura, es autor de diversos escritos musicales sobre el txistu, Felipe Gorriti, Manterola y Santesteban, la música en Gipuzkoa o las ideas musicales de Pío Baroja. En 2001 el sello discográfico Aus Art Records publicó varios discos con obras de Gorriti, Ledesma, Manterola y Xabier Munibe dirigidas por Bello Portu.

Desde el punto de vista de la creación, a pesar de no componer gran cantidad de obras, sus composiciones son notables. Destaca su producción para coro con obras como *El llanto de Zalacain*, *Soule* y el tríptico coral *Pays Basque*. Cabe también destacar la suite sinfónica *Carnaval de Lanz*, así como la adaptación de canciones de Iparraguirre para coro. Javier Bello Portu ha sido uno de los referentes de la música vasca de las últimas décadas. Falleció en San Sebastián en febrero de 2004.

BEOBIDE, José Mª

## BEOBIDE, José Mª

Zumaian jaio zen 1882an. Lehen musika-ikasketak parrokiako organista zen Antonio Truebarekin egin zituen. Iruñan Samaniegorekin jarraitu zituen, eta gero Madrilgo Kontserbatorioan. 18 urte zituela, jesuitek irakasle eraman zuten Quitoko ikastetxera, Ekuadorrera, eta han hiriko kontserbatorioko solfeo-irakaslea (1902 eta 1906an), eta Jesusen Lagundiko elizako organista ere izan zen (1923). Estatu Batuetara joan zen osasun arazoak zituela-eta, eta handik itzuli zenean musika-eskolak eman zituen Barakaldon, eta El Escorialeko Alfontso XII.aren Errege Ikastegian. Aurrerago organista-plaza eskuratu zuen Burgoseko Mesedearen Ikastetxean. Orduan ezkondu egin zen, eta Burgosen lan egin izan urte askotan. 1930ean Iruñako Irakasle-eskolako musika-katedra irabazi zuen lehiaketan, eta Jesusen eta Mariaren elizako organista ere bazen garai hartan. 1940an Iruñako musika-akademiako irakasle izendatu zuten, eta 1957an, Pablo Sarasate kontserbatorio sortu berriko zuzendariorde.

Musika erlijiosoa konposatu zuen batez ere, ahotserako nahiz organorakoa. Musika lirikoa ere egin zuen, *Los baños de Argel*, *La muñeca china*, *Miniatura mariana*, *Vieses*, *La batelera* eta *El último cartucho* zarzuelek erakusten dutenez. Gainera, Burgoseko, Salamancako eta Euskal Herriko herri-doinuak dotore harmonizatu zituen. José María Beobide Burgosen hil zen 1967an.

Nace en Zumaia en 1882. Inicia sus estudios musicales con el organista de la parroquia de su localidad natal, Antonio Trueba. Continúa su formación en Pamplona con Samaniego y posteriormente se traslada al Conservatorio de Madrid. A los 18 años los jesuítas le llevan como profesor al Colegio de Quito (Ecuador), donde fue además profesor de solfeo en el conservatorio de la ciudad (1902 y 1906), así como organista de la iglesia de la Compañía de Jesús (1923). Debido a problemas de salud se traslada a Estados Unidos. A su regreso, imparte clases de música en Baracaldo y en el Real Colegio de Alfonso XII de El Escorial. Posteriormente logra el puesto de organista del Colegio de la Merced de Burgos, donde contrae matrimonio y trabaja durante años. En 1930 gana por oposición la cátedra de música de la Escuela Normal de Magisterio en Pamplona, siendo además organista en la iglesia de Jesús y María. En 1940 es nombrado profesor de la Academia de Música Pamplonesa y en 1957 subdirector del recién creado Conservatorio Pablo Sarasate.

Destacó como compositor de música religiosa, tanto coral como organística, y tiene en su haber varias zarzuelas, como *Los baños de Argel*, *La muñeca de China*, *Miniatura mariana*, *Vieses*, *La batelera* o *El último cartucho*. José María Beobide falleció en Burgos en 1967.

## ÇABALETTE, Peio

1961ean jaio zen Iholdin, Nafarroa Behean. Baionako Kontserbatorioan burutu zituen musika-ikasketak. 21 urte zituela, Pariseko Musikako Goi Kontserbatorio Nazionalean sartu zen eta lau lehenengo sari irabazi zituen, horien artean, orkestraziokoa 1988an. Orkestra zuzendaritzako ikasketak sakondu zituen Julius Golmar-ekin Vienan, eta, Robert Delcroix-ekin, Frantzian. Baionako Lurralde Kontserbatorio Nazionaleko irakaslea da gaur egun. Kamarako, korurako musika sortzeaz gainera, arlo sinfoniko-korala (*Bidaia*) landu du eta baita *La Chambre d'Amour* (2000) balleta eta *Ilargi xendera* (1995) opera ere.

Nace en Iholdy, Baja Navarra, en 1961. Realiza los estudios musicales en el Conservatorio de Bayona. Con 21 años ingresa en el Conservatoire National Supérieur de Musique de Paris, consiguiendo cuatro primeros premios, entre ellos el de orquestación en 1988. Amplía sus estudios de dirección de orquesta en Viena con Julius Golmar y en Francia con Robert Delcroix. Es actualmente profesor en el Conservatoire Maurice Ravel Pays Basque – Iparraldeko Kontserbatorioa.

Es autor de numerosas piezas de cámara, corales, sinfónico-coral (*Bidaia*), así como del ballet *La Chambre d'Amour* (2000) y de la ópera *Ilargi xendera* (1995)

## CATALÁN, Teresa

Iruñan jaio zen 1951n. Pianoa eta konposizioa Iruñako Kontserbatorioan ikasi zituen Fernando Remacha irakaslearekin; eta prestakuntza ikastaroen bidez areagotu egin zuen: Ramón Barcerekin, soziologia eta estetika; Acilu, F. Donatoni eta abarrekin, konposizioa. Luis Pastor, Jaime Berrade, J. Vicent Egea eta Patxi Larrañagarekin batera *Iruñako Taldea* sortu zuen. Musika garaikidea zabaltzeko ekimen ugari bultzatu ditu: jardunaldiak, hitzaldiak, eta abar. Hainbat konposizio sari jaso ditu eta erakundeek egindako beste hainbat enkargu. Bere obrak musika jaialdi garrantzitsuetan eta hainbat herrialdetan entzun izan dira, Alemanian, Italian, Errusian, A.E.B.etan Argentinan edo Inglaterran, besteak beste. 1990etik Zaragozako Kontserbatorioko Konposizio eta Instrumentazio katedraduna izan zen, Madrilgo Kontserbatorio Errealeko katedra lortu zuen arte. Euskal Herriko Musikagileen Elkarteko kidea da.

2003an, *Sistemas compositivos temperados en el siglo XX* liburua argitaratu zuen, eta bi urte geroago, *El compositor Ramón Barce en la música española del siglo XX. Análisis y edición comentada de sus escritos técnicos, estéticos y sociológicos esenciale*s tesia aurkeztu zuen Valentziako Unibertsitatean.

Nace en Pamplona en 1951. Estudia piano y composición en el Conservatorio de Pamplona con Fernando Remacha, ampliando con cursos de sociología y estética con Ramón Barce, y de composición con Agustín González Acilu, Franco Donatoni, etc. Junto con L. Pastor, J. Berrade, J. Vicent Egea y P. Larrañaga funda el colectivo de compositores *Iruñako Taldea* con el objetivo de reflexionar sobre la tradición de las vanguardias del s. XX. Ha obtenido premios de composición, recibiendo asimismo encargos de instituciones españolas y extranjeras. Su obra ha sido interpretada en destacados festivales de Alemania, Italia, Rusia, EE.UU., Argentina o Inglaterra. Miembro fundador de la Asociación de Compositores Vasco-Navarros, desarrolla una intensa actividad como docente. Ha sido catedrática de composición e instrumentación en el Conservatorio de Zaragoza, ocupando después dicha cátedra en el Real Conservatorio Superior de Música de Madrid.

En 2003 publicó su monografía *Sistemas compositivos temperados en el siglo XX* y dos años después presentó en la Universidad de Valencia la tesis *El compositor Ramón Barce en la música española del siglo XX. Análisis y edición comentada de sus escritos técnicos, estéticos y sociológicos esenciale*s.

http://www.teresacatalan.com/

## CENDOYA, Manuel

Hernanin jaio zen, 1851n. Bere jaioterriko musika bandako organista eta zuzendari lanetan aritu zen, eta solfeoko eta organoko irakasle ere izan zen. Bere ikaslea, besteak beste, José Olaizola organista eta musikagilea izan zen. Konpositore gisa, ahots eta pianorako hainbat obra argitaratu zituen Echeverría eta Guimónen *Ecos de Vasconia* bilduman, A. Díaz argitaletxe donostiarrak inprimatuta, baita argitaletxe berean dauden beste hainbat obra ere. Txistu-lanen egilea ere bada. Donostian hil zen 1920an.

Nació en Hernani en 1851. Ejerció como organista y director de la Banda de música de su localidad natal y fue asimismo profesor de solfeo y de órgano. Alumno suyo, entre otros, fue el organista y compositor José Olaizola. Como compositor, publicó varias obras para voz y piano en la colección *Ecos de Vasconia* de Echeverría y Guimón impresa por la editorial donostiarra A. Díaz, así como otras obras en la misma editorial. Es autor también de obras para txistu. Fallece en San Sebastián el año 1920.

## DÍEZ, Antonio

1920an, Arguedasen, Nafarroan, jaio zen. Kaputxinoen ordenan sartu zen, Filipinetan misio lana eginez bere bizitzaren zati handi batean.
Konpositore bezala musika erlijiosoaren egilea da, Manilan 60ko hamarkadan editatu zituelarik bere lan batzuk. Iruñeko Kaputxinoen Artxibo Probintzialean bere lan ugarirekin erreprografiatutako zenbait eskuizkribu gordetzen dira, bai organorako bakarrik, bai ahotsetan latinez, ingelesez, tagaloz, gaztelaniaz eta alemanez kantatzeko idatzitako testuak ere.
Iruñean hil zen 2012an.

Nace en Arguedas, Navarra, en 1920. Ingresó en la Orden Capuchina, desarrollando la labor misional de Filipinas durante buena parte de su vida.
Como compositor es autor de música religiosa, siendo editadas algunas de sus obras en Manila en los años 60. Se conservan en el Archivo provincial de los Capuchinos en Pamplona varios cuadernos manuscritos reprografiados con abundantes obras suyas tanto para órgano solo como para voces con textos en latín, inglés, tagalo, castellano y alemán.
Fallece en Pamplona el año 2012.

ELBERDIN, Josu

## ELBERDIN, Josu

1976an jaio zen Pasaian (Gipuzkoa). Pianoa, kantua eta harmonia ikasi ditu. Gizarte Diplomatua da EHUn. Pasaiako Udal Musika Eskolan musika irakasten du, hainbat abesbatza zuzentzen ditu eta Trintxerpeko (Gipuzkoa) Karmengo Ama parrokiako organista da.
Haurren koru musikaren inguruko ikastaroak eskaini izan ditu. Hainbat abesbatza lehiaketatan sari ugari lortu ditu eta Tolosako Abesbatzen Lehiaketarako enkarguak jaso izan ditu, bai eta hainbat herrialdetako abesbatzenak ere.
Bere jarduera haurrentzako musikan eta, bereziki, abesbatzentzako musikan oinarritzen bada ere, musika sinfoniko, pop-rock edo musika instrumental generoetako obra ugari idatzi ditu.

Nace en Pasaia (Gipuzkoa) en 1976. Ha realizado estudios de piano, canto y armonía. Es también Diplomado Social por la UPV. Se dedica profesionalmente a la enseñanza musical en la Escuela Municipal de Música de Pasaia, la dirección de varios coros y es organista de la parroquia de Nª Sra. del Carmen en Trintxerpe (Gipuzkoa).
Imparte de forma regular cursos relacionados con la música coral infantil. Ha obtenido premios en diversos concursos corales y ha recibido encargos tanto del Certamen de Masas Corales de Tolosa como de un progresivo número de corales de diversos países.
Si bien su música está centrada en el ámbito infantil, y en general en la música coral, cuenta también con una importante producción de obras de carácter sinfónico, pop-rock o instrumental.

http://elberdin.com/

ERKOREKA, Gabriel

## ERKOREKA, Gabriel

Gabriel Erkoreka Bilbon jaio zen, 1969an. Bilboko J.C. de Arriaga kontserbatorioan ikasi zuen eta Gasteizen, Carmelo Bernaolarekin. 1995ean, Michael Finnissyrekin ikasi zuen konposizioa Londoneko Royal Academy of Music-en, eta Londoneko Unibertsitatean Master bat egin zuen.
Haren lanak Venezia, Vienan, Londonen, Manchesterren, Hong Kongen, Sydneyn, New Yorken, Chicagon eta Madrilen estreinatuak izan dira. Hainbat sari jaso ditu: SGAE (1996), Eusko Jaurlaritza (1999), Erromako Saria (2001), INAEMen Konposizio Saria eta Espainiako Kolegioa (Paris) eta Ferrer-Salaten Reina Sofía saria.
Hainbat enkargu jaso izan ditu: INAEM, Nieuw (Amsterdam), Biennale für Neue musik (Hannover), Madrilgo Elkargoaren Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Donostiako Musika Hamabostaldia, eta abar. Egun, MUSIKENEko konposizio irakaslea da.

Gabriel Erkoreka nace en Bilbao en 1969. Estudia en el Conservatorio J.C. de Arriaga (Bilbao) y con Carmelo Bernaola en Vitoria. Realiza en 1995 estudios de composición con Michael Finnissy en la Royal Academy of Music (Londres), así como un Master por la University of London.
Sus obras han sido interpretadas en Venecia, Viena, Londres, Manchester, Hong Kong, Sídney, Nueva York, Chicago o Madrid. Ha obtenido los premios *SGAE* (1996); Gobierno Vasco (1999); Premio de Roma (2001), Premio de Composición del INAEM y del Colegio de España (París), y el Premio Reina Sofía de la Fundación Ferrer-Salat.
Ha recibido encargos del INAEM, el Nieuw Ensemble (Ámsterdam), la Biennale für Neue Musik (Hannover), Orquesta Sinfónica de la Comunidad de Madrid, Orquesta Sinfónica de Euskadi, la Quincena Musical de San Sebastián, etc. Actualmente es profesor de composición en MUSIKENE.

www.erkoreka.com

## GONZÁLEZ BASTIDA, José Mª

1908ko irailaren 10ean Bergaran jaio zen. Aitarekin, bertako musika bandako zuzendariarekin hasi zituen musika-ikasketak. Familiaren musika-giro ezin hobean murgilduta bizi zela, 8 urte zituenean Bandako piccolo flautin-plaza bete zuen. Parrokiako organojole postuan hasi zen aitaren tokian eta harmonia eta konposizio-ikasketak burutu zituen Luis Urteagarekin, eta instrumentazio eta orkestra-ikasketak Lamotte de Grignon-ekin. 1929An, Zumaiako Udal Musika Bandako zuzendari-plaza eskuratu zuen oposizioz eta 1931n, Hernanikoa. 1944an, Gasteizeko Udal Musika Bandako zuzendari izendatu zuten eta Jesús Guridi Kontserbatorioko irakaslea izan zen garai berean. 1958An, Donostiara joan zen bizitzera eta Easo Abesbatzako zuzendari izan zen. Abesbatza horrekin arrakasta handia izan zuen bai Espainian, baita atzerrian ere.

Korurako nahiz txisturako konposizio-sari asko irabazi zituen eta Donostian, Bilbon, Iruñean eta beste hainbat lekutan burututako Txistularien Alardeetako zuzendaria izan zen urte askotan. Sortu zituen musika-lanen artean hauek azpimarra daitezke: *Suite Vasca del Sol* eta *Tríptico Vasco*; *Etsai larre* poema sinfonikoa; *Loiolako Iñigo* poema sinfoniko-korala; *La novia del mar* eta *La virgen de Piedra* zartzuelak. Donostian hil zen 1997ko irailaren 27an.

Nace en Bergara el 10 de septiembre de 1908. Comienza sus estudios musicales con su padre, director de la Banda de la localidad y a los 8 años forma ya parte de la Banda ocupando la plaza de flautín. Suple a su padre en la organistía de la parroquia y amplía sus estudios de armonía y composición con Luis Urteaga e instrumentación y orquesta con Lamotte de Grignon.

En 1929 obtiene por oposición la plaza de director de la Banda Municipal de Zumaia y en 1931 la de Hernani. En 1944 fue nombrado director de la Banda Municipal de Vitoria, compaginando dicho cargo con el de profesor en el Conservatorio Jesús Guridi. Residente en Donostia desde 1958, asume la dirección del Coro Easo. Tiene un historial repleto de premios de composición tanto para coro como para txistu. Fue durante muchos años director de los alardes de txistularis celebrados en San Sebastián, Bilbao, Pamplona, etc.

Entre sus obras cabe destacar la *Suite Vasca del Sol* y *Tríptico Vasco* para orquesta; el poema sinfónico *Etsai larre*; el sinfónico-coral *Iñigo de Loyola*; las zarzuelas *La novia del mar* y *La Virgen de Piedra*. Falleció en San Sebastián el 27 de septiembre de 1997.

GONZÁLEZ BASTIDA, Miguel

## GONZÁLEZ BASTIDA, Miguel

1920ko irailaren 26an jaio zen Bergaran. Ignacio eta Jesusaren semea. Aitarekin, Bergarako Musikako Udal Bandaren zuzendariarekin hasi zituen musika ikasketak, pianoa eta piccoloa lantzen. 10 urte zituela bandan sartu zen piccoloa jotzeko. Gero, pianoa jotzen nabarmendu zen. 1937an Bergarako Musika Bandaren zuzendariorde izan zen eta zuzendari 1941etik aurrera eta baita Santa Marina Parrokiako organo-jolea ere.

1948an. ikasketak sakondu zituen eta ordu arte ikasitako ofizialdu egin zuen. Hori horrela, flauta, piano, harmonia, konposizioa, kontrapuntoa eta fuga landu zituen, Donostiako Kontserbatorioan Luis Urteaga, Ramón Usandizaga eta José María Iraolarekin.

1971n, Bergarako Orfeoiaren zuzendari izendatu zuten ordu arte Ramón Oyarzabal maisu ospetsuari jarraituz, 17 urte eman zituen kargu horretan.

Musikagile oparoa izan da, batez ere, bandarako musika. Oso ezagunak dira haren *Estampas bergaresas*. Txistu bandarako ere sortu ixsn du: *Hiru martxa heraldiko*, *Argiak argitu dezan*, etab…

Musika-lan erlijioso garrantzitsuak ere sortu ditu: *Euskal Meza,* 5 ahots eta organoa, *Liberame Domine*, 4 ahots eta organoa, *Tota pulchra*, 6 ahots eta organoa, *Ave Maria*, 4 ahots eta organoa, *Stabat Mater*, 4 ahots eta orkestra, etab. Azken hori 1976an estreinatu zuen bera zuzendari zela.

Nace en Bergara el 26 de setiembre de 1920, hijo de Ignacio y Jesusa. Hizo sus estudios musicales con su padre, organista y director de la Banda Municipal de Bergara, cultivando el flautín y el piano.

A los diez años ingresó en la Banda, como flautín. Más tarde destacó como excelente pianista.

En 1937 fue nombrado subdirector de la Banda de Bergara, siendo director desde 1941, así como organista de la Parroquia de Santa Marina.

En 1948 amplió e hizo oficiales sus estudios de flauta, piano, armonía, contrapunto, fuga y composición en el Conservatorio de San Sebastián con Luis Urteaga, Ramón Usandizaga y José Mª Iraola.

En 1971 accedió a la dirección del Orfeón Bergarés, sucediendo en el cargo al mítico Ramón Oyarzabal. Se mantuvo al frente durante 17 años.

Su producción musical es muy extensa, especialmente para Banda. Particularmente populares son sus *Estampas Bergaresas.* También para conjunto de txistularis ha compuesto *Tres marchas heráldicas, Argiak argitu dezan,* etc.

Igualmente, ha escrito importantes obras de música religiosa: *Euskal Meza* a 5 voces y órgano, *Liberame, Domine* a 4 voces y órgano, *Tota pulchra* a 6 voces y órgano, *Ave Maria* a 4 voces y órgano, *Stabat Mater* a 4 voces y orquesta, etc. Esta última obra se estrenó en 1976, dirigida por el propio autor.

GUERRERO, Junkal

## GUERRERO, Junkal

Andoainen jaio zen 1968an. Donostiako Kontserbatorioan Solfeo, Piano, Klabe, Musikaren Pedagogia eta Koru Zuzendaritza ikasketak egin zituen. 1995etik 2007ra Javier Bustoren zuzendaritzapean KCK-ko (Kanta Cantemus Korua) kide izateak eragin handia izan zuen formazioko nahiz koruko ibilbidean. Gaur egun, Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorio Profesionalean piano-irakasle da, eta zeregin hori zuzendaritza eta korurako konposizio lanekin uztartzen du. 2008tik Luberri Abesbatzako zuzendaria da, eta 2012tik Loinatz Abesbatzakoa. Berak sortutako *Bi bihotz* lana, 2007ko Tolosako Haur Abesbatzen Lehiaketan derrigorrezkoa izan zen, eta *Kalera gazteak* 2011koan. Kantika Korala, Landarbaso Abesbatza, Ganbara Txiki abesbatza eta Unanue kamara koralerako obrak sortu ditu enkarguz. Haren obrak *www.cm-ediciones.com* webgunean argitaratu ohi ditu.

Nacida en Andoain, Gipuzkoa, en 1968. Es titulada superior en solfeo, piano, clave, pedagogía musical y dirección de coros por el Conservatorio Superior de San Sebastián. La experiencia vivida desde 1995 a 2007 como componente de KCK bajo la dirección de Javier Busto ha dejado una huella imborrable en su formación y trayectoria coral. Actualmente compagina su labor docente como profesora de piano en el Conservatorio Profesional Francisco Escudero con la dirección y composición coral. Es directora de Luberri Abesbatza desde 2008 y de Loinatz Abesbatza desde el 2012. Su obra *Bi bihotz* fue obra obligada del Certamen Coral Infantil de Tolosa 2007 y *Kalera gazteak* del de 2011. Ha escrito por encargo para Kantika Korala, Landarbaso Abesbatza, Ganbara Txiki Abesbatza, Unanue Kamara Korala… Sus obras son editadas en *www.cm-ediciones.com.*

http://junkalguerrero.wordpress.com/

GURIDI, Jesús

## GURIDI, Jesús

Gasteizen jaio zen, 1986an. Madrilen burutu zituen musika-ikasketak. Gerora, Bilbon jarraitu zituen Sainz Basaberekin, eta Pariseko Schola Cantorumen, Vincent d´Indyrekin; Bruselan, Joseph Jongenekin eta Kolonian Otto Neitzelekin sakondu zituen. 1912az geroztik, Bilboko Koru Elkarteko zuzendaria izan zen eta musikagile etapa oparoari ekin zion musika genero guztiak landuz: koruentzako musika erlijiosoa, organorako musika, orfeoirako musika, ganbera-musika (harizko laukote bi), musika sinfonikoa (*Sinfonía pirenaica*, *Homenaje a Walt Disney*), lirikoa (*Mirentxu*, *Amaia*, *El Caserío*, *Mari-Eli*, *Peñamariana*...), zinerako musika, etab 1939an, Madrila joan zen bizitzera. Organo Katedraduna izan zen Madrileko Goi-mailako Kontserbatorioan, eta 1956az geroztik bertako zuzendaria, 1961ean zendu zen arte.

Nació en 1886 en Vitoria-Gasteiz. Hizo sus primeros estudios musicales en Madrid. Los continuó en Bilbao con Sainz Basabe y amplió en la Schola Cantorum de París con Vincent d'Indy y, más tarde, en Bruselas con Joseph Jongen y en Colonia con Otto Neitzel. Desde 1912 fue director de la Sociedad Coral de Bilbao e inició una brillante etapa de compositor, escribiendo en todos los géneros: música religiosa, para coros, órgano, orfeónica, música de cámara (dos cuartetos de cuerda), sinfónica (*Sinfonía Pirenaica, Homenaje a Walt Disney*), lírica (*Mirentxu, Amaya, El Caserío, Mari-Eli, Peñamariana…*), música de cine, etc. En 1939 fijó su residencia en Madrid. Desempeñó la cátedra de órgano en el Real Conservatorio, del que fue director desde 1956 hasta su muerte en 1961.

**www.eresbil.com/web/guridi/**

## HERMOSA, Gorka

Musika ikasketak Zumarraga, Irun, Donostia eta Gasteizko Eskola eta Kontserbatorioetan egin zituen. Thierry Paillet, Friedrich Lips, Amaia Liceaga eta Carlos Iturralderekin areagotu zituen ikasketak, Larrodeko (Auvergne, Frantzia) E.D. du Thor (Avignon, Frantzia) eta C.N.I.M.A ikastetxeetan akordeoi-formakuntza osatu zuen eta Elsbeth Moser, Eric Pisani, Jean Luc Manca edo Jacques Morneten eskolak jaso zituen.
Akordeoi eskolak eman ditu Valladoliden eta 2003/04 ikasturtetik, Alcañizeko (Teruel) Musika Kontserbatorio profesionalean. Bere zazpi disko argitaratu ditu, eta beste zenbait artistaren hogeita hamar CD baino gehiagotan parte hartu du. Akordeoiaren historiari buruzko lau liburu idatzi ditu, eta gai horri buruzko hitzaldiak hogei herrialde baino gehiagotan eman.
Haren obrak bost kontinenteetako akordeoilariek interpretatu ohi dituzte. *CIA IMC-UNESCO Composition* saria jaso du, eta lau aldiz azken 6 urteetan *Confederation Mondiale d 'Accordéon*-ek urteko konposizio onenari ematen dion saria. Haren lanak Berliner Philharmoniker edo Washingtongo National Operan ere interpretatu izan dira, baita hainbat herrialdetan: AEB, Brasil, Finlandia, Belgika, Errumania, Lituania, Polonia, Espainia, besteak beste. Film laburren eta TVE2ko hainbat dokumentalen musika konposatu du.

Ha realizado sus estudios musicales en la Escuela y Conservatorios de Zumarraga, Irun, Donostia y Vitoria-Gasteiz. Ha ampliado estudios con Thierry Paillet, Friedrich Lips, Amaia Liceaga y Carlos Iturralde, completado su educación acordeonística en los centros E.D. du Thor (Avignon, Francia) y C.N.I.M.A de Larrode (Auvergne, Francia) y recibido clases de Elsbeth Moser, Eric Pisani, Jean Luc Manca o Jacques Mornet.
Ha impartido clases de acordeón en Valladolid y, desde el curso 2003/04, en el Conservatorio Profesional de Música de Alcañiz (Teruel). Ha publicado siete discos propios y ha participado en más de una treintena de CDs de otros artistas. Ha escrito cuatro libros sobre la historia del acordeón, dando conferencias sobre este tema en más de una veintena de países.
Como compositor, sus obras son habitualmente interpretadas por acordeonistas de los cinco continentes. Ha recibido el premio *CIA IMC-UNESCO Composition* y 4 veces en los últimos 6 años el premio que la *Confédération Mondiale d'Accordéon* da a la mejor composición del año. Sus obras han sido interpretadas en lugares como la Berliner Philharmoniker o la National Opera de Washington y sus obras para acordeón y orquesta estrenadas en EE.UU, Brasil, Finlandia, Bélgica, Rumanía, Lituania, Polonia, España... Ha compuesto música de cortometrajes y de varios documentales de TVE2.

http://www.gorkahermosa.com

## IBARGUCHI, Emiliano

Ubidean (Bizkaia) jaio zen 1920an. Gasteizeko apaizgaitegian ikasi zuen pianoa Luis Arámbururekin, eta harmonia, Julio Valdésekin. 1947an apaiztu ondoren, Madrilgo Kontserbatorioan sakondu zituen musika-ikasketak Benito García de la Parra irakaslearekin. Markinan organista izan ondoren, 1951n Gasteizeko katedraleko organista izendatu zuten, eta Kontserbatorioko eta apaizgaitegiko irakasle ere izan zen han.
Musika erlijiosoa egin zuen nagusiki: ofizio-errezoari musika jarri zion, eta Gabon-kantak, kantatak, Ama Birjinari eskainitako kantuak eta abar konposatu zituen. *Vísperas de San Prudencio*, patrón de Álava lanaren egilea da.
Emiliano Ibarguchi bere jaioterrian, Ubidean, hil zen 1996an.

Nace en la localidad vizcaína de Ubidea en 1920. Realiza sus estudios musicales en el seminario de Vitoria con Luis Arámburu y armonía con Julio Valdés. Tras ordenarse sacerdote en 1947, amplía su formación en el Conservatorio de Madrid con Benito García de la Parra. Tras ser organista en Marquina, en 1951 es nombrado organista de la catedral de Vitoria, donde trabaja también como profesor en el Conservatorio de Música y en el Seminario Diocesano.
Compuso principalmente música religiosa, musicalizando el Oficio Divino, además de obras como villancicos, cantos marianos, cantatas, etc. Es autor de unas *Vísperas de San Prudencio*, patrón de Álava.
Emiliano Ibarguchi murió en su localidad natal, Ubidea, en 1996.

## IBARRONDO, Félix

Oñatin jaio zen 1943an, musikarekin harremana zuen familia batean eta aitarekin hasi zituen musika ikasketak. Filosofia eta Teologiako ikasketekin batera konposiziokoak burutu zituen Juan Cordero Castaños-ekin. Donostiako eta Bilboko Kontserbatorioetan piano eta konposizio diplomak lortu zituen. 1970ean Parisera abiatu zenean Max Deutsch, Henri Dutilleux eta Maurice Ohanarekin sakondu zituen ikasketak. Aldi berean GRM-en (Groupe de recherches musicales) musika elektronikoa hasi zen lantzen.
Lortu dituen sarien artean Óscar Esplá Saria, Lili Boulanger-a, SACEM (Egile eta Konpositoreen Elkarte frantsesa) Konpositore Gazteena edo Frantziako akademiako Nadia Boulanger Sariak azpimarratuko genituzke.
Parisera joan zenean École du Louvre eskolan sartu zen. Pintura eta oro har arte plastikoei esker musikagintzarako estimulu berezia aurkitu zuen. Obra ugari eta desberdinak idatzi ditu, orkestrarako musika eta ahotserako lanak gehienbat.
Musikagileei dagokienez, Maurice Ohana eta Francisco Guerrerorekin izandako lotura oso garrantzitsua izan zen bai musika bai eta giza mailan ere.

Nace en Oñati en 1943, en el seno de una familia de tradición musical. Realiza los primeros estudios musicales con su padre Antonino. Paralelamente a los estudios de filosofía y teología, trabaja la composición musical con Juan Cordero Castaños. Obtiene los diplomas de piano y composición en los Conservatorios de San Sebastián y Bilbao. En París, donde reside desde el año 1970, ha tenido como profesores a Max Deutsch, Henri Dutilleux y Maurice Ohana. Se inicia asimismo a la música electroacústica en el GRM (Groupe de Recherches Musicales).
Obtiene, entre otros premios, el premio Óscar Esplá, el Lili Boulanger, el de Jeune Compositeur de la SACEM (Sociedad de Autores y Compositores francesa), así como el Nadia Boulanger de la Academia francesa.
A su llegada a París, sigue las clases de l'École du Louvre. Encontrará en la pintura (y en las artes plásticas en general) un estímulo permanente para su labor compositiva. En su obra, abundante y variada, prevalecen la música orquestal y vocal.
Su vínculo estrecho con los compositores Maurice Ohana y Francisco Guerrero fue determinante, tanto musical como humanamente.

IPARRAGUIRRE, José María

## IPARRAGUIRRE, José María

Villareal de Urrechuan, gaur Urretxu, jaio zen, 1820an. Zerainen osaba batekin gaztelania eta gramatika ikasi ondoren, Gasteizera joan zen latina ikastera. Hamahiru urte zituela, Madrilera joan zen familia osoa. 1933an etxetik ihes egin eta karlisten lerroetara sartu zen lehen karlistaldia zela eta. Garai horretan litekeena da gitarra jotzen hastea, bere bizitzan zehar lagun izango zuen instrumentua. Borroka amaitu ondoren, Frantziara joan zen, eta, beranduago, Tirolera, non Caroline Duprez sopranoa ezagutu zuen, hari kantu eskolak emateko prest zegoena. Ondoren, Europan zehar berarekin emanaldiak eskaintzen ibili zen. Frantzian, *La Marsellesa* abestean sortzen zituen zalapartak zirela eta, herrialdetik bota egin zuten. 1851n Londresera iritsi zen, Italiako konpainia liriko bateko kide izanik. 1852an Euskal Herrira itzuli zen eta 1853an Madrilen geratu zen; ordukoa da hark idatzitako Gernikako Arbola kantua, ereserki bilakatuta, haren obrarik interpretatuena. 1858an Ameriketara emigratzea erabaki zuen, hasieran Buenos Airesen geratu zen; gero, ezarriz, Uruguaira igaro zen, eta artzain izan zen hainbat arrantxotan. Pobrezian urte batzuk igaro ondoren, 1877an Euskal Herrira itzuli zen, eta euskal kulturaren sinbolotzat hartu zuten. Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldundietatik pentsio bat jaso zuen, Itsason (Gipuzkoa) pulmonia baten ondorioz hil baino lehentxeago.

Hogei bat doinu aitortzen zaizkio, eta horietako asko herrikoi bihurtu dira. XIX. eta XX. mendeetako hainbat autorek *Adio Euskal-Erriari*, *Ara nun diran*, *Ume eder bat* edo *Zugana Manuela* doinuak erabili izan dituzte pianorako, kanturako eta pianorako, korurako edo hainbat instrumentu-talderentzako moldaketak eta harmonizazioak egiteko.

Nace en Villareal de Urrechua, hoy Urretxu, en 1820. Tras aprender castellano y gramática con un tío suyo en Zerain, se trasladó a Vitoria para aprender latín, y con trece años se trasladó toda su familia a Madrid. En 1933 se escapó de casa y se alistó a las filas carlistas con ocasión de la primera carlistada. En esta época es probable que se iniciara en la guitarra, un instrumento que le acompañaría a lo largo de su vida. Terminada la contienda se trasladó a Francia y más tarde al Tirol, donde debió de conocer a la soprano Caroline Duprez que se ofreció a impartirle clases de canto y con quien recorrería después parte de Europa. En Francia y con ocasión de los tumultos que ocasionaba al cantar en público *La Marsellesa*, fue expulsado del país. En 1851 llegó a Londres, formando parte de una compañía lírica italiana. En 1852 regresa al País Vasco y en 1853 se encuentra en Madrid, fecha en la que se suele datar la composición de su melodía más interpretada, una vez convertida en himno, el *Gernikako Arbola*. En 1858 decidió emigrar a América, instalándose inicialmente en Buenos Aires, para pasar al Uruguay, donde residió en diversos ranchos como pastor. Tras pasar varios años de penuria, en 1877 regresa al País Vasco, siendo recibido como un símbolo de la cultura vasca. Recibió una pensión por parte de las Diputaciones de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya poco antes de que, a consecuencias de una pulmonía, falleciera en la localidad guipuzcoana de Itsaso.

Se le reconocen una veintena de melodías, gran parte de las cuales se han convertido en populares. Diversos autores de los siglos XIX y XX se han servido de melodías como *Adio Euskal-Erriari*, *Ara nun diran*, *Ume eder bat* o *Zugana Manuela*, para realizar arreglos y armonizaciones para piano, canto y piano, coro o diversos conjuntos instrumentales.

## JĒKABSONE, Laura

JĒKABSONE, Laura

Laura Jēkabsone Latvian Voices ahots taldeko musikagilea, zuzendari artistikoa, abeslari profesionala, musika irakaslea eta zuzendaria da.
Musika Hezkuntzako lizentziatura Letoniako Jāzeps Vītols Musika Akademian lortu zuen eta nazioartean esperientzia hartu du ahots tailer eta konposizio lehiaketa askotan.
Latvian Voices taldearen errepertorioaren zatirik handienaren egilea da, Letonian eta atzerrian konpositore ezaguna izanik. Letoniako Orkestra Sinfoniko Nazionalak, "Latvija" Estatuko abesbatzak, "Tiara" Rigako katedraleko emakumeen abesbatzak, "The Real Group" a cappella taldeak (Suedia), "Sjaella", "Amarcord" (Alemania), "Magi Ensemble" (AEB), Cantabile Voices" (Taiwan), "Incantare Coro Femenino" (Argentina) beste hainbat taldek interpretatu dute bere musika.
2006tik, zuzendaritza-laguntzaile eta coach bokal gisa lan egiten du Letoniako abesbatza misto amateur onenetako batean: "Maska"-n. "Maska" abesbatzak bere lehen CDa kaleratu du, *Ziema* [negua] izenekoa.
Laura "kokle"-rako (letoniar instrumentu tradizionala) idatzitako lehen sinfoniaren egilea da.

Laura Jēkabsone es compositora, directora artística del grupo vocal Latvian Voices, cantante profesional, profesora de música y directora. Obtuvo su licenciatura en Educación Musical en la Academia de Música Letonia Jāzeps Vītols y ha adquirido experiencia internacional en muchos talleres vocales y concursos de composición.
Es autora de la mayor parte del repertorio del grupo Latvian Voices, siendo una reconocida compositora en Letonia y en el extranjero. Su música ha sido interpretada por la Orquesta Sinfónica Nacional Letona, el coro estatal "Latvija", el coro de niñas de la catedral de Riga "Tiara", el grupo a cappella "The Real Group" (Suecia), "Sjaella", "Amarcord" (Alemania), "Magi Ensemble" (EE. UU.), "Cantabile Voices" (Taiwán), "Incantare Coro Femenino" (Argentina), etc.
Desde 2006 trabaja como asistente de dirección y coach vocal en uno de los mejores coros mixtos aficionados de Letonia: "Maska". El coro "Maska" ha lanzado su primer CD de autor titulado *Ziema* [Invierno].
Laura es la compositora de la primera sinfonía escrita para el instrumento tradicional letón "kokle".

## LAUZURIKA, Antonio

1964an jaio zen Gasteizen. Harmonia eta konposizio-ikasketak egin zituen Carmelo Bernaolarekin Jesús Guridi Musika Eskolan. Ondoren, bekak jaso zituen Villafranca del Bierzoko musika garaikideko topaketetan eta Granadako Manuel de Falla ikastaroan parte hartzeko eta Madrileko Kontserbatorioan aritzeko L. de Pablo, C. Halffter, T. Marco, José Ramón Encinar eta beste zenbait musikagilerekin.
Era berean, Darmstadeko topaketetan 1990ean, Avignon-eko ikastaroan Elliott Carter-ekin 1991n eta Sienako Chigiana akademian Franco Donatoni-rekin 1992an izan zen zenbait bekari esker.
Juan March Fundazioak, Donostiako Hamabostaldiak, Europa Cantat-ek eta Alacanteko Musika Jaialdiak zenbait enkargu agindu izan dizkiote. Haren lanak Madril, Alacant, Segovia, Mexiko, Rottemburg, Londres eta New Yorken jo izan dituzte, besteak beste.
1989an SGAEk antolatutako Konposizio Lehiaketan hirugarren saria irabazi zuen eta 1991n UNESCOko Konpositoreen Nazioarteko Tribunarako hautatu zuten Parisen. Bigarren egin zuen 1995ean Alfredo Casella Nazioarteko Sarian.

Compositor vitoriano nacido en 1964. Se forma musicalmente en la Escuela de Música Jesús Guridi de Vitoria, donde estudió armonía y composición con C.A. Bernaola.
Posteriormente es becado para asistir a encuentros de música contemporánea de Villafranca del Bierzo, al curso Manuel de Falla de Granada y al Conservatorio de Madrid con compositores como L. de Pablo, C. Halffter, T. Marco, José R. Encinar, etc. También asiste como becario a los encuentros de Darmstadt (1990), al curso de Avignon con Elliott Carter (1991) y a la Academia Chigiana de Siena con Franco Donatoni (1992).
Ha recibido encargos de la Fundación Juan March, de la Quincena Musical de San Sebastián, del Europa Cantat y del Festival de Música de Alicante. Sus obras han sido interpretadas en diversos escenarios y festivales de Madrid, Alicante, Segovia, México, Rotemburgo, Londres o New York.
En 1989 recibió el tercer premio del Concurso de Composición de la Sociedad General de Autores de España, en 1991 fue seleccionado para la Tribuna Internacional de Compositores de la UNESCO en París y en 1995 obtuvo el 2º Premio Internacional Alfredo Casella.

LAZKANO, Ramon

## LAZKANO, Ramon

Donostian jaio zen, 1968an. J. Padrosarekin ikasi zuen pianoa eta konposizioa F. Escuderorekin, Donostiako Kontserbatorioan. Pariseko CNSMn ikasi zuen Alain Bancquartekin eta Gérard Griseyrekin; eta 1990ean konposizioko lehen saria jaso zuen. Montrealen Gilles Tremblayrekin sakondu zituen ikasketak. Pariseko École des Hautes Études en Sciences Socialesen diplomatua da.
Monacoko Prince Pierre saria lortu zuen (1995); Leonard Bernstein (Jerusalen) Konposizio Saria eta Frantziako Arte Ederren Akademiako Georges Bizet Saria. JONDEko egoiliarra, 1999an Stanford-ko unibertsitateak gonbidatu zuen Estrasburgoko Musika Jaialdira. 2011n Ensemble 2m2-ko konpositore egoiliarra izan zen, eta bere obrari buruzko monografiko elebiduna argitaratu zen.
Erroman izandako bi egonaldietan, konposizioa eta gaur egungo konposizioaren xedeari buruzko hausnarketa egin ahal izan du, testuen arteko eta soinu eta denboraren esperientziari buruzko pentsamenduan sakontzeko; eta hori guztia honako piezatan gauzatu du: *Ilunkor* (EOS-OSE-ren enkargua) eta *Hauskor* (ORCAM-en enkargua). 2001 eta 2011 urteen artean, *Igeltsuen Laborategia* deritzon ganberako piezen bilduman egin du lan, Oteizaren esperientzien laborategiaren kontzeptuan oinarrituz.
Estrasburgoko CNR-n Orkestazioa irakatsi du eta konposizioa ESMUC-n. MUSIKENEko Orkestazioko irakasle da.

Nace en San Sebastián en 1968. Estudió piano con J. Padrosa y composición con F. Escudero en el Conservatorio de San Sebastián. Estudia en el CNSM de París con Alain Bancquart y Gérard Grisey, obteniendo el 1er Premio de Composición en 1990. Amplía estudios en Montreal con Gilles Tremblay. Es diplomado en la École des Hautes Études en Sciences Sociales de París.
Tiene los Premios Prince Pierre de Mónaco (1995); Premio de Composición Leonard Bernstein (Jerusalén) y Premio Georges Bizet, de la Academia de Bellas Artes de Francia (2007). Residente con la JONDE, en 1999 es invitado por la Universidad de Stanford así como por el Festival Música de Estrasburgo. En 2011 es compositor residente del Ensemble 2e2m, que publica una monografía bilingüe sobre su obra.
Sus dos estancias en Roma le han permitido profundizar en la reflexión sobre la composición y su propósito en nuestros días, que se cristaliza en un pensamiento sobre la intertextualidad y la experiencia del sonido y del tiempo que ha hecho nacer piezas emblemáticas como *Ilunkor* (encargo de EOS-OSE) y *Hauskor* (encargo de la ORCAM). Entre 2001 y 2011 ha trabajado en *Igeltsoen Laboratoegia*, colección de piezas de cámara, que toma como referencia el concepto oteiziano del laboratorio experimental.
Ha enseñado orquestación en el CNR de Estrasburgo y composición en la ESMUC. Es profesor de orquestación en MUSIKENE-Centro Superior de Música del País Vasco.

http://www.lazkano.info/

PABLO, Luis de

## PABLO, Luis de

Bilbon jaio zen 1930ean. 1937an hasi zituen musika-ikasketak Hondarribiko Moja frantsesen ikastetxean. 1939An, Madrila abiatu zen eta 1952 arte bertan bizi izan zen. Tarte horretan Zuzenbidea ikasteaz gainera, musika-ikasketak bere kabuz sakondu zituen. Darmstadt, Messiaen, Boulez eta Stockhausen-go ikastaroetan hartu zuen parte. Schoenberg-en ikaslea izandako Max Deustch-ek eragin handia izan zuen haren musika-estetikaren bilakaeran. Tiempo y Música (1959-1964) eta Alea (1965) sortu zituen musika irekia eta laborategi elektronikoa hedatzeko. Abangoardiako musika jaialdiak antolatzeaz gainera, atzerriko hainbat jaialditan musika esperimentalerako Espainiako ordezkaria da. Musika-lan ugari idazten ditu enkarguz. Sari ugari eskuratu ditu, horien artean Pueblo Entzute Saria (1967), Charles Cros Akademiaren Sari Nagusia (1969) eta Luigi Dallapiccola Saria (1979). Era guztietako musika-jeneroak bere gain dituen musika-lan katalogo zabala osatu du. Musika-lanak: *Coral* (1953), *Invenciones* (1955), *Polar* (1961), *Cesuras* (1963), *Módulos* (1966), *Elephants ivres I* (1972), *Zurezko Olerkia* (1976), *Dibujos* (1979), *Kiu* (1982), *Tarde de poetas* (1986), *Impromptus para orquesta* (1991), *Cape Cod* (1994).

Nace en Bilbao el 28 de enero de 1930. Sus primeros estudios musicales los realizó en 1937 en el Colegio en Hondarribia. Trasladado a Madrid en 1939, donde residió hasta 1952, cursó Derecho y siguió sus estudios musicales de forma privada. Concurrió a los cursos de Darmstadt y siguió los de Messiaen, Boulez y Stockhausen. Su contacto con Max Deustch, discípulo de Schoenberg, influyó en la evolución de su estética musical.

Fundó Tiempo y Música (1959-1964) y Alea (1965), difusora de música abierta y laboratorio electrónico. Organizador de festivales de música de vanguardia y representante español de música experimental en festivales extranjeros, ha sido profesor en las Universidades de Ottawa y Montreal y primer director del Centro para la Difusión de la Música Contemporánea.

Ha recibido, entre otros, el Premio de la Popularidad Pueblo (1967), el Gran Premio de la Academia de Charles Cros (1969) y el Premio Luigi Dallapiccola (1979). Es poseedor, entre otras distinciones, de la Medalla de Oro a las Bellas Artes, el Premio Nacional de Música, el Premio Honegger de la Fondation France y el Premio de la Fundación Guerrero. Acaba de ser galardonado con el León de Oro en la Bienal del Festival Internacional de Música Contemporánea de Venecia.

Es autor de un amplio catálogo de 260 obras, que abarcan todos los géneros musicales.

SANTIAGO, Rodrigo A. de

## SANTIAGO, Rodrigo A. de

Barakaldon (Bizkaia) jaio zen, 1907an. Musika ikasketak Bilboko Kontserbatorioan egin zituen, eta Rafael Navarro (biolina), Jesús Guridi (harmonia), José Sainz Basabe (konposizioa) eta Armand Marsick (orkestrazioa eta zuzendaritza) izan zituen irakasle. Hamasei urte zituela, Bilboko Udal Orkestran biolinista plaza atera zuen. Herri hauetako banda zuzendari plazak ere atera zituen: Mungia (Bizkaia, 1931-1936), Valencia de Don Juan (León, 1940-1947), A Coruña (1947-1967) eta Madril (1967-1977). Galizian eman zuen garai oparoan zuzendari izan zen A Coruñako Udal Orkestran eta El Eco Koru Polifonikoan. Irakaslana A Coruñako Musika eta Deklamazio Kontserbatorioan burutu zuen, harmonia eta konposizioko zuzendariorde eta katedratiko gisa.
Musika idazki ugari idatzi zituen, maiz polemikoak, musika galegoaren zein euskal musikaren inguruan, batez ere zortzikoa gai hartuta.
Bere kreazio lanak genero ugari hartzen ditu: bi zarzuela eta lau ballet, hiru sinfonia, lau kontzertu eta hainbat obra sinfoniko-koral, horien artean Requiem bat. Banda, talde instrumental eta korurako sortutako hainbat lanen egile ere bada.
A Coruñan hil zen, 1985ean.

Nace en Baracaldo (Bizkaia) en 1907. Cursó estudios musicales en el Conservatorio de Bilbao con Rafael Navarro (violín), Jesús Guridi (armonía), José Sáinz Basabe (composición) y Armand Marsick (orquestación y dirección). A los dieciséis años obtuvo la plaza de violinista en la Orquesta Municipal de Bilbao. Fue director de las bandas de Mungia (Bizkaia) (1931-1936), Valencia de Don Juan (León) (1940-1947), A Coruña (1947-1967) y Madrid (1967-1977). En su fructífera época gallega de veinte años fue igualmente director de la Orquesta Municipal de A Coruña y de la Coral Polifónica El Eco. Desarrolló su labor docente en el Conservatorio Coruñés de Música y Declamación como subdirector y catedrático de armonía y composición.
Dejó numerosos escritos musicales, tanto sobre música gallega como sobre música vasca. Su labor creativa abarca dos zarzuelas, cuatro ballets, tres sinfonías y cuatro conciertos así como diversas obras sinfónico-corales, entre ellas un Réquiem.
Es autor asimismo de obras para banda, para diversos conjuntos instrumentales y para coro.
Fallece Rodrigo de Santiago en A Coruña en 1985.

TORRE - MÚZQUIZ, Conde de

## TORRE - MÚZQUIZ, Conde de

Severo de Aguirre Miramón y Elósegui Tolosan jaio zen 1845ean. Donostiako Irutxuloko taldearen bultzatzailea izan zen. Mendi ingeniari gisa, nekazaritza gaiak ezagutzen aditua zen, eta hainbat argitalpen idatzi zituen, tartean sagardoaren fabrikazioari buruzko bat.

Arte Ederren Elkarteko lehendakaria izanik, Euskalerriaren Adiskideen Elkartea berriro altxatu zuen, *Revista Vascongada* zuzendu zuelarik. Gainera, hainbat artikulu idatzi zituen *Morfeo* ezizenarekin.

Alderdi erreformistaren barruan hainbat kargu politiko izan zituen, Logroñoko senatari eta Donostiako alkate izan zen 1897 eta 1901 artean. Bere agintaldian Musika Akademia eta Donostiako Udal Museoa sortu ziren.

Bere garaian arrakasta handia izan zuten hainbat lanen egilea da, hala nola, *Los Euskaros: Rigodones sobre temas populares vascos* edo *Igarondo*.

Donostian hil zen 1920an.

Severo de Aguirre Miramón y Elósegui nació en Tolosa en 1845. Fue propulsor de la banda Irutxulo de San Sebastián. Como ingeniero de montes, era un experto conocedor de las materias agrarias, escribiendo varias publicaciones, entre ellas una destacada sobre la fabricación de la sidra.

Siendo presidente la Sociedad de Bellas Artes, volvió a poner en pie la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, cuya *Revista Vasco*ngada dirigió. Escribió además diversos artículos bajo el seudónimo de *Morfeo*.

Desempeñó diversos cargos políticos, dentro del partido reformista, siendo senador por Logroño y alcalde de San Sebastián entre 1897 y 1901. Bajo su mandato se creó la Academia de Música y el Museo Municipal donostiarra.

Como compositor es autor de diversas obras que tuvieron un rápido éxito en su época, como *Los Euskaros: Rigodones sobre temas populares vascos* o *A Igarondo*.

Fallece en San Sebastián el año 1920.



# MUSIKASTEKO KONTZERTU DIDAKTIKOAK

## MUSIKA JOLAS

Landarbaso Abesbatzaren musika tailerrak kontzertu didaktikoa eskainiko die Errenteriako LH1etik LH4ra bitarteko haurrei, euren hizkuntza erabiliz eta erakargarria izan daitekeen formatu batean.
Kantua ardatz hartuta eta pianoz eta perkusioz lagunduta, ikasleak zirku musikal baten lekuko izango dira. Estilo desberdinak abestuko dituzte, kantuekin batera gorputz-adierazpena izango dute, eta, amaitzeko, gorputz-perkusioa izango dute, jarrera- eta ahots-higiene ona bereganatuz modu ludikoan.
Aurten, COVID19ren ondoriozko osasun-murrizketak direla-eta, jarduera hori publikorik gabe grabatuko da, eta irakasleei bidaliko zaie, ikasgelan digitalki zabal dezaten.

El taller de música de Landarbaso Abesbatza ofrecerá un concierto didáctico a los niños y niñas de LH1 a LH4 de Errenteria, utilizando su propio idioma y en un formato que pueda resultar atractivo.
Con el canto como eje y acompañados de piano y percusión, los escolares serán testigos de un circo musical en el que participarán de manera activa. Cantarán diversos estilos, acompañarán las canciones con expresión corporal, y finalizarán con percusión corporal, adquiriendo de manera lúdica una buena higiene postural y vocal.
Este año, debido a las restricciones sanitarias derivadas del COVID19 dicha actividad será grabada sin público y enviada al profesorado para su difusión digital en el aula.

Intérpretes:
Maddalen Dorronsoro (aurkezpena eta ahotsa)
Oier Etxaburu (pianoa)
Iñaki Letamendia (perkusioa)

Babeslea
Patrocinador

musika bulegoa
euskal herriko musika bulego elkartea







ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN

Andra Mari Abesbatza

Eresbil

SUSTATZAILEAK PROMUEVEN

Errenteriako Udala

KULTURA kreaktiboa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

BABESLEA PATROCINA

kutxa FUNDAZIOA

LABORAL kutxa

musika bulegoa
euskal herriko musika bulego elkartea

LAGUNTZAILEAK COLABORAN

errenteriamusikal

musikene
Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia
Centro superior de música del País Vasco

Musikagileak